**BAZTAN BALLEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN -NAVARRA-

## 2014ko EKAINAren 3ko EZ-OHIKO OSOKO BILKURA
## *SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 3 DE JUNIO DE 2014*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2014ko ekainaren 3an, goizeko 8:00etan, Baztango Udala bildu da ez-ohiko Osoko Bilkuran, Garbiñe Elizegi Narbarte alkate andrea buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Maria Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate eta Jon Elizetxe Bidegarai, BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, Jose Mª Garmendia Arizmendi, UPN taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak eta Maite J. Iturre Llano NA-BAI (2011) taldekoa.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8 de la mañana del día 3 de junio de 2014, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por la alcaldesa Garbiñe Elizegi Narbarte y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, María Teresa Oteiza Apecechea, Maitane Maritorena Azkarate y Jon Elizetxe Bidegarai, del grupo BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren, María Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, José Mª Garmendia Arizmendi, del grupo UPN; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche, del grupo BAZTANGO EZKERRA y Maite J. Iturre Llano, del grupo NA-BAI (2011).*

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte aritu da.

*Actúa como secretario, Iulen Urbiola Loyarte.*

Alkate andrearen aginduz, bilkura hasi da.

*La alcaldesa da comienzo a la sesión.*

### 1.- 2014KO UDAL AURREKONTUAREN ALDAKETA. 3. ZK.

**3.A** Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketa, saio honetako espedientean dagoena, behin azalduz gero Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritziak eman dituzte. Iritziak bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildurik daude eta horrela laburbiltzen dira,

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Foroan solastatu zenez, oraingo handitzea Baztani zerbitzu handiagoa emateko egiten ari zen, baina hori ez da batere garbi gelditu. Haragiaren zatiketa-gela nola kudeatuko da? Aldaketa justifikatu da hobekuntza ekarriko duela erranez, baina nola ez da zehazten. Gure ustez, diru publikoa partikular bati laguntzeko erabiliko da eta horregatik kontra bozkatuko dugu.

**Garbiñe Elizegik, alkateak**: Kudeaketa motak ez du kentzen zerbitzua beharrezkoa dela eta ez dela ematen. Eta afera da eman behar dela Baztanen eta eskualde mailan. Hiltegia estrategikoa da. Noski hobetzen ahal dela gehiago, baino hau aurrerapauso bat da. Foroan harakin batek azaldu zuen bere kontrako jarrera, baino gure betebeharra zerbitzua ematea da eta ez monopoliorik ahalbideratzea.

**Begoña Sanzberrok, UPNkoak**: Monopolioa da inbertsio publikoaren bidez sortuko duguna.

### *1.- MODIFICACIÓN AL PRESUPUESTO 2014. Nº 3*

***3.A*** *Explicado el informe elaborado por Intervención, adjunto al expediente de la presente, y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en,*

***Begoña Sanzberro, UPN****: En el foro se habló de que la presente ampliación se realizaba para dar un mayor servicio al valle, pero esto no queda nada claro. ¿Cómo se va a gestionar la sala de despieces? Se justifica la modificación en la mejora, pero no se dice el cómo. Entendemos que con dinero público se va dar ayuda a un particular y por eso votaremos en contra.*

***Garbiñe Elizegi, alcaldesa****: La forma de gestión no quita la necesidad del servicio, que no se da y que ha de quedar en Baztan y en la comarca. El matadero es estratégico. Claro que se puede mejorar, pero esto es un avance. En el foro un carnicero mostró su oposición, pero nuestra obligación es dar el servicio y no permitir los monopolios.*

***Begoña Sanzberro, UPN****: Monopolio es lo que vamos a crear mediante inversión pública. ¿Es un*

Zerbitzua da? Bai, ia guztia da zerbitzua, zapatadenda bat ere zerbitzua da. Egun Baztanen zerbitzu hori edozein harakinek ematen du. Kudeatzeko modua bigarren mailakoa da. Niretako ez da hala; niretako funtsezkoa da. Finantziabide alternatiboa proposatu nuen baina nork proposatua den ikusirik ez da aintzat hartzen. Denborak arrazoiak emanen ditu eta kenduko ditu.

*servicio? Sí, casi todo lo es, hasta una tienda de zapatos. Hoy ese servicio lo da en Baztan cualquier carnicero. El sistema de gestión es secundario. Para mí no lo es, para mí es fundamental. Ya puse sobre la mesa otra financiación alternativa, pero viniendo de quién viene no se tiene en cuenta. El tiempo pondrá y quitará razones.*

**Jon Elizetxek, BILDUkoak**: Esandakoaren arabera ulertzen dut kudeaketa argi eta garbi egonen balitz aldeko bozka emanen zenukeela. Zerbitzu on bat ematea eta herritarei benefiziatzea da gure helburua.

*Jon Elizetxe, BILDU: Por lo dicho entiendo que si la gestión estuviera definida daríais el voto a favor. Dar un buen servicio y beneficiar a los vecinos es nuestro objetivo.*

**Leopoldo Jaének, UPNkoak**: Jakin nahiko nuke nork eman dion hiltegiko giltza harekin inolako kontraturik ez duen bati.

***Leopoldo Jaén, UPN:*** *Me gustaría saber quién le ha dado la llave del matadero a un señor que no tiene contrato con el mismo.*

**Jon Elizetxek, BILDUkoak**: Guk hiltegiaren kudeatzaileekin dugu kontratua eta haiek dira kudeaketaren arduradunak.

***Jon Elizetxe, BILDU:*** *Nosotros tenemos un contrato con los gestores del matadero y ellos son responsables de su gestión.*

Alkateak bozkatzera deitu du.

**Aurrekontu aldaketa aldeko 8 botorekin eta kontrako 5 botorekin onetsi da.**

*Alcaldía llama a votar.*

***La modificación presupuestaria es aprobada por 8 votos a favor y 5 en contra.***

**3.B** Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketa, saio honetako espedientean dagoena, behin azalduz gero eta Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eman ondoren, alkateak bozkatzera deitu du.

**Aurrekontu aldaketari hasierako onespena ematea onetsi da, aldeko 8 boto eta kontrako 5 izan direla.**

***3.B*** *Explicado el informe elaborado por Intervención, adjunto al expediente de la presente, y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión, alcaldía llama a votar.*

***La modificación presupuestaria es aprobada con carácter inicial por 8 votos a favor y 5 en contra.***

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aurrekontuaren aldaketak Idazkaritzan egonen dira ikusgai 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; behin betikoz onetsitzat joko dira, baldin eta epe hori igaro eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu.

*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente si, transcurrido dicho plazo, no se formulasen reclamaciones.*

Jarraian Alkate-Udalburu andreak bilkura amaitutzat eman du goizeko 8:15ean. Idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por la Sra. alcaldesa-presidenta se levanta la sesión, siendo las 8:15 de la mañana. De todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEAK
*LA ALCALDESA*

BAZTANGO UDALA
Ayuntamiento de Baztan
BAZTAN

IDAZKARIAK
*EL SECRETARIO*